

Amaitu dira udako oporrak

Sasoeta-Zumaburun 367 haur matrikulatu dira. Landaberri Garaikoetxean aldiz, 871.

Asteazkenean, goizeko 09:00etan bai Landaberri-Garaikoetxea eta bai Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeetako gelak haur eta gazteen ahotsez eta garrasiez bete ziren berriro ere. Aurten, 2010-2011 ikasturteari hasiera emateko prest baina era berean urduri aurkitu genituen haurrak.

Bi hilabetez lagunak ikusi gabe egon eta gero, gauza asko dituzte elkar trukatzeko. Udan bizitakoak batak besteei kontatzeko. Eta arropa, motxila, liburu edo koaderno berriak estreinatzeko parada ere bai.

Egokitze hilabetea

Askorentzat lehenengo klase eguna izan zen asteazkenekoa. Berrikuntza ugari, eta lehendabiziko aldiz gurasoen babesetik aldentzen hasteko eguna. Urtero bezala, txiki hauen artean negarrak entzun genituen, hala ere, ez ziren asko izan.

Bi urteko haurrek gurasoen eskutik gelara sartu, irakasle

berria ezagutu, guztia gainbegiratu eta lagun berriein jolasten hasi ziren, baina gurasoak hor ondoan zizutela ahaztu gabe. Lehenengo astean ordu beteko saioak izango dituzte eta gurasoak haiekin egongo dira. Pixkanaka ordutegia luzatu eta guraso gabe egotera ohitu beharko dira. Bitartean gurasoak ikastolara joan beharko dira.

Matrikulazioak gora

Orotara 871 ikasle ari dira Garaikoetxea Landaberri ikastolan. D ereduan 701 matrikulatu eta B ereduan 170. Kurtzoka matrikulatuak daudenak, ondorengoak: HH2 66, HH3 92, HH4 88, HH5 110, LH1 88, LH2 94, LH3 99, LH4, 80, LH5 77, LH6 77.

Sasoeta-Zumaburun orotara 367 ikasle matrikulatu dira 2010-2011 ikasturterako. Matrikulatu diren haurren kopuruak kurtzoka: HH2 54, HH3 65, HH4 63, HH5 38, LH1 26, LH2 20, LH3 34, LH4 21, LH5 25, LH6 21.

Ikasturtea ondo hasi!



Landaberri-Garaikoetxeako ikasle berriak lagunak, jolasak... ezagutzen ari dira gurasoen begiradapean.



Lagunak berriro ikusteko eta udan suertatutakoetaz hitz egiteko parada izan zuten Sasoeta-Zumaburuko ikasleek.



Euskara ikasi nahi dutenek aukera bikaina dute herriko bi euskaltegietan /4-5

GIZARTEA/3

Goiegi-Gorako hotela eraikitzeko arau aldaketa onartu zen udalbatzarrean.



Herriko Areto-Futboleko txapelketak berrikuntzak izango ditu /6

**Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak**

Oria Etorbidea
Ibaiondo Poligonoa 4
Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

ERREKATXO JATETXEA

KARTA
eta
EGUNEKO MENUA



NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria

WIFI GUNEA

Zorion-agurrak



Nagore

Lau muxu pottoloak etxeko Sorgiñari guztion partetik. Zorionak laztana!!!



Eider

Zorionak preziosa zure 7. urtebetetzean. Muxu handi bat. Familia eta lagunak



Unai

Zorionak zure 18. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu bat familiaren partetik



Ivan eta Espe

Zorionak betetzen dituzuen 6 eta 66 urteengatik. Asko maite zaituztet. Ivan, bizitzan pasa zaidan eta Noraren partetik. hoberena zara.



Erika

Zorionak zure urtebetetzean! Bost muxu handi aita-ama, Ander eta Noraren partetik.



Itziar

Zorionak eta bost muxu handi familiaren partetik.



Julen eta Iñaki

Aupa URRU pelotariak. Zorionak bikote, familiaren partetik.



Jone

Abuztuaren 26an !!! Zorionak Lide, Beñat eta gurasoen partetik.



Marijo eta Joxerramon

Zorionak bikote! Ederki pasa genuen zuen ezkontzan, parranda bikaina egin genuen. Muxu handi bat familiaren partetik!



Sara

Zorionak sorgina, zure parkeko lagun partetik. Muxu bat.



Asuncion eta Ventura

Zorionak zuen urrezko ezteietan seme-alaba eta biloba guztien partetik! Ea zuen urrezko maitasunak askoz ere urte gehiago betetzen dituen! 50 muxu handi!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Irailetik aurrera, Finestrat-eko kalan apartamentua alokatzen dut. Bi logela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Urbanizazioak igerilekua eta padel pista ere baditu. Hondartzatik 150 m-ra dago. Harremanetarako telefono zenbakia, 667 731 456.

• Bi garaje alokatzen ditu, bata itxia eta bestea irekia Urbarteko Green plazan. Harremanetarako telefono zenbakia, 943 492 558.

Lan-eskariak

• Pertsona arduratsuak pertsona adinduek eta gaixoak zaindu, atezain lanak edo bestelako lanak egingo lituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Tel.: 680 983 527 (Carlos)

• Neska bat eskaintzen da pertsona helduak zein haurrak zaintzeko eta garbiketarako. Informeak ere baditu. Harremanetarako telefono zenbakia: 647 614 537.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Jaiotzak

Melanie Rivas Perez, abuztuaren 31n
Noa Sanchez Monzon, abuztuaren 25ean
Ayelen Castro Martin, abuztuaren 22an
Julen Perez Altuna, abuztuaren 16an
Raul Castro De la Cruz, abuztuaren 16an
Iraia Diez Peña, abuztuaren 15ean
Noha Gil Fernandez, abuztuaren 11ean
June Lasarte Legazne, abuztuaren 6an

Markel Marina Erasquin, abuztuaren 6an
Gorka Eizmendi Biain, abuztuaren 4ean
Aisha Legaz Canflanca, abuztuaren 25ean
Danel Aristizabal Pisabarro, abuztuaren 24ean
Maily Brigitte Yañez Chacon, abuztuaren 24ean
Hodei Herrero Saez, abuztuaren 24ean
Alvin Iwinosa Osarenkhoe, abuztuaren 15ean

Heriotzak

Patxi Duran Isasa, irailaren 2an 61 urte zituela
Eduardo Aldazabal Zabala, abuztuaren 18an 77 urte zituela
Agustin Moreno Maria, abuztuaren 13an 82 urte zituela
Anastasia Rodriguez Garcia, abuztuaren 31n 68 urte zituela
Antonio Larrarte Iturria, abuztuaren 29an 83 urte zituela
Jose Herrero Saez, abuztuaren 28an 75 urte zituela
Jose Gabino Balda Liceaga, abuztuaren 25ean 79 urte zituela
Feli Pérez Cocero, abuztuaren 23an 67 urte zituela

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udalzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Bestelakoak

Taxi geltokia ... 943 361954
Eusko Tren ... 902 543210
TSST autobusak ... 943 361740

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 10

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 11

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 12

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 13

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteartea, 14

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 15

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, Egunero

Chucla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Osteguna, 16

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Ostirala, 17

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 18

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 19

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 20

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 21

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Goiegi-Gorako hotela aurrera doa PSOE eta PPren bozkei esker

Gai ugari jorratu ziren atzo goizeko Udala Batzarrean eta guztien artean, Goiegi-Gora HIE egitasmoaren arau subsidarioak puntualki aldatzeko dokumentuaren onespena azpimarratu daitezke.

PSOE eta PP alderdiek bat egin zuten, Goiegi-Gora eremuan 6.500 metro karratu izango dituen lau izarretako hotela eraikitzeko proiektua ahalbideratzeko. Horri esker, 40 lanpostu sortuko direla nabarmendu zuten.

Ezker abertzaleko zinegotziak aurka jarriera adierazi zuten: "Terresategi eremuan egingo den proiektu osoaren aurka gaude. Lanpostuak sortu behar dira, baina beste bide batetik ere sortu daitezke".

Ezker Batuako Rikardo Ortega abstenitu egin zen: "Arazo ugari sortuko dira eremuan, trafikoa, etab. Gainera, kokalekuari dagokionez, proposamen bakarra egin da eta ez da beste lekurik begiratu".

EAJ-k ere aurka bozkatu zuten. "Gu proiektuaren prozeduraren aurka gaude. Ez zen lehiaketariki egin eta hitzarmen bitartez adostu zen guztia" azaldu zuten Estitxu Alkortaek.

PSOeko Iñaki Mugica



Goiegin hotela eraikitzeko pausu handia eman zen atzo. ARG: L-O UDALA

bozeramailea pozik agertu zen "proiektua garrantzitsua delako herriarentzat. 40 lanpostu sortuko dira hasieran baina etorkizunean gehiago izan daitezke eta langileak herritarrek izango dira".

"Udaleko Gobernuak ez du nahi Lasarte-Oria lo herri bihurtu dadin, horregatik lanpostuak sortzen saiatuko da, industrialdeak sortzen," gaineratu zuten. EAJri erantzunez, "promotorarekin hitzarmena egin zen eta horrekin herriak Plazaolako lurrak lortu ditu etorkizunean parkea egiteko" adierazi zuten Mugikak.

Soldata jaitsiera

Lege-dekretu baten arabera, Udalek gastua %5 murriztu behar dute urte honetan. Hori dela eta, gobernu taldeak Gobernu batzordeko kideen, teknikoen eta langileen soldaten jaitsiera eta sei lanposturen murrizketa proposatu zuten, baina oposizioko taldeek bat egin eta atzera bota zen proposamena atzo goizeko batzarrean.

Ezker Batuako zinegotziak guztien arteko akordioa behar dela eta erabakia Udaltzaren dagoenetik gertu egon behar lukeela adierazi zuten.

Ezker Abertzaleko zinegotziak kaltetuak langileak izatea salatu zuten. Era berean, Gobernuak errenta handia dutenei eskatu behar diela eta egoera hau aldatzeko bide globalak hartu behar direla adierazi zuten.

PPko Encinas jauna gastua kontrolatzearekin ados zegoen, "legeak horrela dioelako". Baina bere ustez adostutako proposamena izan beharko litzateke eta honetaz gain, udalean dagoen tekniko kopurua murriztu beharko litzateke.

LOHPa bat etorri zen horrekin eta Gobernuak liberratu kopurua murriztu beharko litzatekeela adierazi zuten.

EAJk ere gehiegizkotzat du gobernuaren liberatu kopurua "Gipuzkoako beste herrietan ez dago horrelakorik."

PSOEren izenean Iñaki Mugikak azaldu zenez, era batera edo bestera aurrera eraman behar den puntua da eta proposamena onartua izan ez denez, horren ondorioak ikusi beharko dira.

Udaltzarrean eztabaidatu ziren gainerako gaiak hurrengo zebakian azalduko ditugu, hala nola, Memoriaren Eguna, Jon Tecedor beka edo alderdien proposamen batzuk. •

ZAHARREN OMENALDIA

Bazkarirako gonbidapenak eskuragarri

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak aditzera eman duenez, urriaren 10ean Zaharren Omenaldia ospatuko da.

Omenaldiaren inguruan antolatzen diren ekitaldien barruan, Michelingo Kirol gunean ehundaka pertsona adindu biltzen dituen bazkaria dago.

Bazkari honetara joateko gonbita behar da eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak atzo ireki zuten txartela eskuratzeko epea.

Baldintzak eta ordutegia

Bazkarira joan nahi duenak bi baldintza bete behar ditu, 1944an edo lehenago jaioa eta Lasarte-Orian erroldatua izan behar du.

Era berean, 1944an edo lehenago jaiotakoak ez izan arren, aipatutako baldintzak betetzen dituztenen senar-emazteek ere izena eman ahal izango dute.

Txartelak astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara egongo dira eskuragarri Villa Mirentxun, irailak 17, ostiralera arte.

Gonbitak lortzeko erakuntzako alboko atetik sartu eta bere NAN aurkeztu behar du interesatuak. •

Yogari buruzko hitzaldi sorta ikasturteari hasiera emateko

Urtero legez, Lasarte-Oriako "Sanatana Dharma" Yoga Eskolan, kurtso berriari hasiera emateko hitzaldi saioa antolatuta da Yogaren inguruan.

Jardunaldiak hurrengo astean izango dira Eskolako Zumaburu kaleko 12. zenbakiko baxuan duen egoitzan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko dira ekintza guztiak eta doakoak dira gainera.

Hala ere, astelehenean, hitzaldia baino lehen, 18:00etan, mantra eta meditazio saioa egingo da. Honen ostean, *La interpretación de los cuentos* hitzaldia entzun ahaliko da, Akarpanik eskainiko duena.

Asteartean, Alfredo Iglesia *Druvak ¿Qué es el Yoga?* azalduko du; asteazkenean, berriz, *El negocio de Yoga* dokumentala ikusiko da eta ostean, solasaldia egongo da; ostegunean, aldiz, Juan Jose Urbieta *Vashistak Espiritualidad y religión* hitzaldia eskainiko du eta



lazko ikasturte hasieran ere hainbat hitzaldi eskaini zituzten.

azkenik ostiralean, Jesus Lopez *Brihaspatiren* eskutik *La ciencia de lo particular* hitzaldia entzungo dute egoitzara hurbiltzen direnek.

Hastapen ikastaroa

Bestalde, Yoga hastapen ikastaroa ere eskainiko dute hilaren irailaren 20tik 31era.

Zortzi saio teoriko praktikoa

izango dira, 19:00ak eta 20:30ak bitartean eta hasiberrirentzat oso gomendagarria dela adierazi digute Yoga Eskolakoek.

Kurto honi buruzko informazio gehiago eskuratu nahiez gero 685 773 081 telefono zenbakira hots egin edo karmainhoa@gmail.com helbide elektronikora mezua bidali. •



Zortzi talde entzungo dira parapetoan, Ydilia taldea izango da horietako bat.

Parapetosonik jaialdia larunbatean

Larunbatean, herriko gazteek musikaz ederki gozatzeko aukera dute *Parapetosonik* jaialdian.

Arratsaldeko 16:00etatik goizeko ordu txikiak arte, hainbat talde entzun ahaliko dira herriko eszena toki berri batean, parapeto ondoan dagoen anfiteatroan, hain zuzen ere.

Antolatzaileek azaldu diguten bezala, jaialdia 15:00etan irekiko ditu ateak, "ordu betez musikarekin giroa dugu eta

gero kontzertuak hasiko dira."

Estilo desberdinak

Hilotz, *Two mules and a rainbow*, *Odolaren mintzoa*, *Ydilia*, *Flashback*, *Dirty eyes*, *Zephyr* eta *Black Absenthe*. Herriko, zein kanpoko taldeak izango dira rock, punk eta metal estiloko nahasiko dituen jaialdi berri honetan.

Antolatzaileek gonbitea egiten diete herriko gazteei parapetora hurbildu eta jaialdian murgiltzeko. •

Herriko Areto-Futboleko txapelketan berrikuntzak

Antolakuntzan eta araudian aldaketak daude 2010-2011 denboraldian

Ostadar K.F.ek antolatzen duen Herriko XXVIII. Areto-Futbol txapelketa urriaren lehenengo asteburuan hasiko da eta aldaketak izango ditu antolakuntzan eta araudian.

"Lehen taldeek sareak eta materiala eraman behar zituzten Garaikoetxeara. Orain, serioago egiten saiatu gara eta horrek guretzat lan gehiago suposatzen du," adierazi digute.

Horregatik, aurten antolatzailen artean lana banatuko dute, epaileen laguntzarako persona bat egongo da, araudiko kezka eta kexentzat beste bat...

Antolakuntza aldetik beste aldaketa bat dagoela ere jakin arazi dute, orain arte, astelehenetan egiten zen ordutegiaren zozketa desagertuko da.

"Kiroldegia abendura arteko orduak eman dizkigu eta horrek denboraldi hasieran hiru hilabete hauetako zozketak egitea ahalbidertzen du" aipatu dute, "era

honetara, guztiak jakingo dute noiz eta zein ordutan duten partida."

Epaileak eta mahaia

"Gauzak ongi egin nahi izan ditugu, taldeei erraztasunak eman eta orain jokalariek gehiago exijitzen dute," aipatu digute.

Azaldu digutenez, epaileak jarri ziren partidetan kontrol gehiago egoteko eta taldeek epaile lanik ez egiteko. "Lauzpabost dira epaile lanak egiten. Borondate onez egiten dute eta ordaintzen zaie, baina asko exijitzen diete taldeek," aitortu dute.

Orain beste asmo bat dute, taldeek mahaia lana ez egitea. "Baina asmoa aurrera eramateko pertsonak lortu behar ditugu. Taldeei gure asmoa jakin araziko diegu lehenengo bileran eta norbait animatzen bada, horren arabera egingo dugu lan," azaldu dute. "Lan hau ere ordainduko da, noski. Horregatik garestitu da aurten izena ematea," atxiki dute.



Ostadarreko arduradunek aurtengo txapelketako antolakuntzan eta isunetan aldaketak egin dituzte.

"Ez dela inor animatzen, ba orain arte bezala jarraituko dugu, taldeek mahaia lan egiten eta lan hori ez egiteak, dakiten bezala falta larria dakar," aipatu dute.

Araudi aldaketak

Baina antolakuntzaz gain, aurtengo araudian ere aldaketa batzuk sumatuko dituzte jokalariek.

Batez ere, isunen atala aldatu dela azaldu digute, "txartel urdina desagertuko da eta gorria izango da; kiroltasunik gabeko ekintzaren bat egiten denean euro batzuetako isuna jarriko da, etab."

Bestalde, talde bat partidara ez agertzeak 30 euroko

isuna zuen eta antolakuntzarentzat zen. "Orain diru hori antolakuntza, mahaia eta beste taldearen artean banatuko da, guztiak kaltetuak baitira," azaldu dute.

Era berean, ikusleen eta jarraitzaileen ekintzei buruzko atala ere gehitu dute. "Esate baterako, norbait zelaira sartzen bada, epaileek zer egin behar duten jakiteko. Honetaz gain, taldeek jarraitzaile sutsuen ekintzen erantzule direla jakinarazteko ere balioko du," onartu dute.

Isunez gain, txapelketa sistemari buruz jendeak ahoz aho zekiena, argi eta garbi utzi dutela aipatu dute, "gero arazorik egon ez dadin."

Talde kopurua

Araudi aldaketa eta berrikuntza hauek guztiak, arestian aipatu bezala, taldeekin egingo den lehenengo bileran azalduko dituzte.

Baina lehenik taldeek inskripzioa egin behar dute. Irailaren 17an bukatzen da izena ematea eta "ez dugu uste iazko talde kopurua berdinduko dugunik. Aurten hogei talde lortzen baditugu, pozik egongo gara," onartu dute.

Eta "talde kopurua bikoitua ez bada, agian epez kanpoko talderen bat hartuko dugu. Baina ezin da ezer zehaztu hurrengo ostiralera arte taldeek izena emateko aukera baitute," azaldu dute antolatzailak. •

"Gauzak ongi egin nahi izan ditugu, taldeei erraztasunak eman eta orain jokalariek gehiago exijitzen dute"

Kiroltako agenda

Kiroltako oharrak

FUTBOLA

Larunbata 11

17:15ean, Ostadar-Kotskas Miren Bihotza (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelin

09:30ean, Touring-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Fanderia, Erreterian.

16:00etan, Amara Berri-Ostadar (Gorengoen Erregionala) Martutene, Donostian.



TXIRRINDULARITZA

Igandea 12

8:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Ziburua egingo du irteera.

Intza K.E. Pilota Eskola

Intza Kirol elkarteak gogoratzen du alebin eta benjamin mailako haurrek irailaren 16an, ostegunean, dutela lehenengo entrenamendua Villa Mirentxun.

Eskolako gaztetxoek astearte eta ostegunetan 18:30etik 20:30era izango dute entrenamendua.

Intza K.E.ko arduradunek Lasarte-Oriako haur, gazte edo hauen gurasoak Michelingo frontoira hurbildu daitezten animatzen dituzte, hilaren 16tik aurrera, izena eman, edozein galdera egin, entrenatzaileak ezagutu edo ikasturtean zehar egingo diren ekintzen berri izateko.

Buruntzaldea I.K.T.

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko neska-mutiek hasi dituzte 2010-2011 denboraldia prestatzeko entrenamenduak Udala

Kiroldegiko igerilekuan.

Arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik, beraz inor interesaturik egonez gero, haiekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo irailaren zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdegin dezala.

LOKEko tenis atala

Lasarte-Oria Kirol Elkarteke tenis atalak jakin arazten du irailaren 13an, astelehena, lanean hasiko dela 2010-2011 denboraldia prestatzeko.

Ordutegi eskaintza iazko bera da. Hala ere, haur eta gaztetxoak, Michelingo Kirol Gunera hurbil daitezke astelehenetik aurrera 18:30etik 20:30era entrenamendu ordutegiak jakin

eta arduradunek taldeak sortzaten.

Era berean, kirol honetan lehenengo pausak eman nahi dituzten herritarren izena ematea irekia dagoela jakitera ematen dute arduradunek.

LOKEko gimnastika atala

LOKEko gimnastika atalak bihar du bere lehenengo entrenamendua, aurrebenjaminetako neskek izan ezik.

Entrenamenduetako ordutegia honako hau izango da, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara; larunbatetan, benjaminak 12:00etatik 13:00etara eta beste mailak 12:00etatik 14:00etara.

Arduradunek azaldu dutenez, aurrebenjaminak urriaren 2an hasiko dira eta larunbatetan izango dute bere saioa, 11:00etatik 12:00etara.

Izena emateko entrenamendu ordutan kiroldegira gerturatu edo 676 872 029 telefono zenbakiar deitu behar du interesatuak.

Beltzak-Ostadar Errugby Eskola

Oporren ostean, Beltzak-Ostadar Errugby Eskola igande honetan, goizeko 9:00etan, egingo du denboraldiko lehenengo entrenamendua, Michelingo Kirol Gunean.

Eskolako arduradunek 2002ko abenduaren 31a baino lehen jaiotako haurrei deialdia egiten diete entrenamendura hurbildu eta kirol hau ezagutzeko.

Eskolan izena emateko hiru aukera daude, bata Ostadarreko bulegoan, bestea 666 321 059 telefono zenbakian edo beltzakrt.com web orrialdean.

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak izango dira ikusgai. Argazkiek inguruko herritako paisaiak eta txokoak islatzen dituzte. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Ostirala, 10

Jam sesioa

Talde gonbidatua AZKAITEK PELOX BAND izango da. Batez ere Rocka eta Bluesa jorratzen du talde honek. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.



Jaialdi berria ospatuko da larunbatean, *Parapetosonik*

PARAPETOSONIK jaialdia ospatuko da. Bertan herriko eta kanpoko rock, punk eta metal estiloko hainbat taldek hartuko dute parte. Parapetoaren ondoan, 15:00etatik aurrera.

LARUNBATEAN, HILAREN 11N
PARAPETOAREN ONDOAN
DOAN

Asteartea, 14

Hitzaldia

ESKOLA/FAMILIA INTERAKZIOA hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

GAZTELANIAZ.

Ostirala, 24

Kontzertua

BUFFALO taldearen emanaldia. Taldea David Gorosppek (baterian) Ander Ederrak (gitarran) eta Joanes Ederrak (baxuan) osatzen dute. Talde instrumental honek jazz rocka egiten du. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.



Larunbata, 25

Azoka

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA antolatu du Aterpea merkatarri-elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin irailaren 25 eta 26an. Michelingo Udal Kirolguneko pilotalekuan, 10:00etaik 20:00etara.

Ama Guadalupe Extremadura etxeko jaiak

EKITALDI ETA EMANALDI GUZTIAK EXTREMADURA ETXEAN BERTAN EDO UZTURRE PLAZAN IZANGO DIRA.

Ostirala, 10

21:00etan

Ikkurrinaren igoera.

21:30etan

Herri afaria Extremadura-koruko etxean.

23:00etan

Franquete eta Felisa, umorea eta koplak.

Larunbata, 11

11:00etan

Marrakzi lehiaketa

12:00etan

Haur jolasak

15:00etan

Mus txapelketa irekia

18:00etan

Flor de Tomillo, Extremadurako kultur taldearen dantza eta koruak, Ermuakoak.

21:30etan

Bazkide eta lagunkideen afaria.

00:00etan

Ibai berriak taldearekin dantzaldia Uzturre plazan.

03:00etan

Ogi-apurak banatuko dira

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea

Geltoki kalea 18

Telefonoa: 943 376181

Oharrak

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kami-seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik daudenei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Elikadura, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia DYAK elikadura, elikadura asaldurak, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia antolatuta du Usubilen.

Hitzaldia irailaren 21ean izango da, asteartea, 19:00etatik 21:00etara Usubilgo Alperro Buru 3-Behea zenbakian dagoen "Gure Pakea" izeneko

Zaharren Egoitzan.

Parte-hartze gisako formatuan gai hauek jorratuko dira, eta azaltzen diren eduki teorikoetatik gain, esku-hariztailek testigantza eta bere aholkuei eta iritziei buruzko mahai-inguru bat antolatuta da. Edozein argibideetarako 943 46 46 22 telefonora deitu edo posta elektronikoki bidali helbide honetara: irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com.

Giza katea Errausketaren aurka Donostian

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak dei egiten die herritarrei irailaren 12an, goizeko 11:30ean Kontxako Erlojuetatik egingo den Giza Katean parte hartzera "Gipuzkoak ez du nahi behar ez duen Errausketa planta bat" lelopean.

Udako Txokotako argazkiak urrian

Udara honetan, uztaile eta abuztuan, Ttakun Kultur

Elkarteak antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urritik aurrera Amaraun ludotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDA jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

Zentro Zibikoko ikastaroetan plazak daude

Emakumeen Zentro Zibikoko hainbat ikastaro antolatuta ditu ikasturte honetan eta oraindik plazak badaudela jakinarazi nahi du. Izen emateko epea gaur amaitzen da eta ikastarok honakoak dira: bolilloak, jostungintza, ipuin-kontaketa, interpretazioa, eskulanak, barreteria, dantzak, bideo-forumak, inauterietako konpartsa, frantsesa... Informazio gehiagorako deitu 943 36 39 58 telefonora.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Ilgandea, 12

11:30etan

Meza Zumaburuko Arantzazuko Ama elizan Ecos de Extremadura, taldearen koruek lagundirik.

13:00etan

Semblante Andaluz etxeko Zambra taldearen emanaldia

14:30etan

Herri bazkaria

16:30etan

Tute txapelketa irekia

18:00etan

Bolo txapelketa emakumezkoentzat eta toka txapelketa gizonezkoentzat.

19:30etan

Ekitaldi diatiko irabazleei sari banaketa

20:00etan

Jaien amaiera eta ikurrinaren jaitziera.

Saharako haurren agurra

Urtero legez, *Oporrak Bakean* egitasmoari esker, Saharako haur multzo bat etorri da gure herrira oporrak igaro eta bere herriko baldintza latzetatik urruntzeko. Aurten zazpi haur izan dira bi hilabetez gure artean egon direnak. Egun hauetan gertakari eta bizipen ugari izan dituzte eta haiekin bildu gara, hain juxtu irteeraren bezperan, oporraldi hauei buruz gehiago jakiteko.

Dalahi, Dah Salama, Brahim, Fahda, Umu-jutha, Ma- Alinin eta Galia Saleh dira gure herrian udara igaro duten Saharako zazpi haurrak.

“Oporrak Bakean” egitasmoari esker, esperientzia, kultura, hizkuntza eta ohitura desberdinak bizitzeko aukera izan dute bi hilabete hauetan.

Ekintzak eta osasuna

Gainera, Lasarte-Orian egon diren haurrek Andoainen hartu dituzten Saharako haurrekin taldea egin eta hauekin batera, hamaika ekintza egin eta gure inguruak ezagutu dituzte.

Kirola eta txangoak nagusi izan dira txoko berezi hauetako egitarauan.

Igeriketa ikastaroa egin zuten herriko igerilekuan eta Andoainen Euskaldunaren talde baten aurka partida jokatu zuten.

Dah Salamak azaldu digunez, hemen dauden futbol zelaia gustatu zaizkio gehien eta hala ere, oporraldi honetan futbolera gutxi jokatu direla kexatu da. Txangoei dagokienez, Urrietako igerilekura, Aquariumera edo hondartzara joan dira. Irlara egin zuten txangoan karramarroak harpatu zituztela ere aipatu digu Dah Salamak.



Saharako haurrak, harrera familiak, lagunak eta Xabier begiralearekin egon ginen oporraldi hauei buruz jakiteko.

Baina aisiaz gain, haurren osasuna ere kontuan izaten da egitasmo honetan. Horregatik, haurrei azterketa medikoa eta oftalmologikoa egiten zaie hemen daudenean.

Agurra

Bidaiaaren bezperan batzuk pena handia dute harrera familia utzi behar zutelako. Dah Salamak adibidez hemen geratu nahi duela aitortu digu:

“Saharan bero gehiegi egiten du” esan du.

Besteak aldiz, etxera bueltatzeko irrikitan daude. Galiak, esate baterako, Sahara nahiago duela aipatu du. •

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
%40 - %75
2010-2011

ona eta merkea

Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 17ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25era

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

Euskara
Batzordea
LASARTE-ORIA



LASARTE-ORIAKO UDALA